



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

**POLITIKA OROKORRARI BURUZKO URTEKO
ADIERAZPENA**
2023-10-31

1.- Legealdi berri baten hasiera

a) Gobernu akordioa

Egun on guztioi. Gaurkoan gure Hiriaren inguruan hitz egiteko eta hausnartzeko aukera paregabea eskaintzen digu Politika Orokorrari buruzko Osoko Bilkura honek.

2023. urte hau Udal eta Foru Hauteskunde urtea izan dugu, eta beraz, Legealdi berri baten hasieran murgilduta gaude. Legealdi berria bai, Hiriak dituen erronkak bere horretan mantentzen badira ere.

Udal Hauteskundeetan Hiritarrek Eusko Alderdi Jeltzalearengan konfiantza berritu zuten, hurrengo lau urteotan etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Hauteskundeen ondoren, Gobernu Akordioa hitzartu genuen Alderdi Sozialistarekin, Hiriak eta Udalak beharrezkoa duten egonkortasuna bermatze aldera.

Donostia siempre se ha caracterizado por ser una Ciudad plural, algo que queda reflejado en la composición de este pleno. El acuerdo entre diferentes y el trabajo conjunto han sido y son los ejes que propician la estabilidad y el consenso político necesarios para realizar una correcta gestión de la Ciudad y procurar su avance.

Hori da hain zuzen ere Udal Gobernu honek ordezkatzeko duena, ezberdinen arteko adostasuna Hiriak dituen erronkei aurre egiteko. Talde guztien ekarpenak jasotzeko prest dagoen Udal Gobernua, azken finean ikuspegi guztiak beharrezkoak direlako aurrera egiterako orduan.

Are gehiago, bizi dugun une konplexu honetan. Mundua aldatzen ari da, eta azkar gainera. Badirudi ziurgabetasuna dela garai berri honen ezaugarri nagusienetako bat. Pandemiak, krisiak, gerrak, aldaketa klimatikoa... Hain aldakorra den mundu honetan ez da erraza suertatzen beti erantzun argiak topatzea. Horregatik da hain beharrezkoa guztion ekarpena jasotzea.

b) Gobernu programa

Gobernu akordioa lortu ondoren, lau urte hauetarako Gobernu egitaraua idazteari ekin diogu Gobernua osatzen dugu bi taldeek. Hori izango da legealdi honen ibilbide orria.

Somos conscientes de que Donostia, como muchas otras Ciudades, también debe afrontar grandes retos que marcarán cambios profundos: La lucha contra el cambio climático, el envejecimiento demográfico, la generación de vivienda asequible, la movilidad sostenible, la gestión del fenómeno turístico o la consolidación de una economía fuerte que cree riqueza, empleo de calidad y cohesión social.

Horri erantzuten dio legealdi honetarako egindako Gobernu Programak. Bertan jasotakoen berri eman aurretik ordea, garrantzitsua da abiapuntua finkatzea, gure Hiriak eskaintzen dituen datuen irakurketa eginaz. Gehiegitan erabiltzen diren irudi deformatuei aurre egiteko modurik honena delako gure jarduera egia diren datuetan oinarritzea, eta ez hainbeste zabaltzen diren uste faltsuetan.

Eta esan beharra dago, gaur egun gure Hiriak eskaintzen dizkigun datuak onak direla, zailtasunak zailtasun eta arazoak arazo, gaur gure Hiria hiri bizia da, aukeraz betea.

No seré yo quien caiga en la autocomplacencia, porque creo que es la peor receta para que una Ciudad avance, pero creo sinceramente que los datos objetivos que hoy nos ofrece San Sebastián, desmienten de plano la imagen negativa y deformada que algunos pretenden proyectar sobre ella. Vamos a ello.

2.- Hiriaren datu nagusiak

Gaur Donostiak historian zehar izan duen biztanle kopururik altuena dauka. 2022ko datuei (dauzkagun azkenak) erreparatzen badiegu, 188.743 biztanle dauzka Donostiak. Berriro diot, historian izan duen biztanle kopururik altuena da hori. Hori ez litzateke horrela izan beharko turismoaren mesedetan Hiria hustutzen ariko balitz. Datuek, argi eta garbi, kontrakoa adierazten digute. Hor daukagu datuek gezurtatzen duten topikoetako bat.

Esan beharra dago gainera, gure Hirian langabezia tasa %7tik behera daukagula gaur egun. Erkidegoko batezbestekotik behera, Estatuko batezbestekotik behera eta Europako batezbestekotik oso gertu. Alegia, gure Hiria gaur aukerak sortzen dituen Hiria da.

Biztanleko daukagun batezbesteko Barne Produktu Gordinari erreparatzen badiogu, honek ere goraka egiten jarraitzen du, biztanleko 44.000 eurotik gorakoa delarik. Hor ere punta puntan gaude.

Beti aldarrikatu izan dut Donostia ezagutza eta zientziaren Hirira dela, eta hori baieztatu ahal izateko datuak ere baliagarri zaizkigu. Gaur egun Ikerketara eta garapenera zuzentzen diren baliabideak gaina jo dute Donostian. 277 miloiko inbertsioa ematen ari da gure Hirian. Historian izan den kopururik altuena. Horrek esan nahi du gure Hirian biztanleko 1.476 euro inbertitzen direla Ikerketa eta Garapenean, Euskadik duenaren bikoitza eta Europar Batasunak berak duen batazbestekotik nabarmen gora. Azken 5 urte hauetan %23a igo da kopuru hori. Horretaz ez dugu ordea hainbeste hitz egiten. Hori ere Donostian gertatzen ari dena da.

Hoy en Donostia, hay casi 6.000 personas dedicadas a I+D y esto representa un crecimiento del 26,9% desde 2015. Esos son los datos de Donostia.

También en 2022 tenemos un record de población con estudios universitarios. El 26,7% de la población. Ésta es sin duda una

muy buena base para apostar por una Donostia que sea una Ciudad de ciencia y conocimiento.

Pero también existen otras actividades en nuestra Ciudad que son de gran importancia. Donostia es, sin duda una Ciudad de servicios. La economía urbana de la Ciudad representa, hoy por hoy, el 10,8% del PIB municipal y el 17,2% del empleo en nuestra Ciudad.

Donostian lurraldeko saltoki txikien %30a kokatzen da (ez ahaztu biztanlegoaren %27a besterik ez garela) eta ostalaritzaren %32a daukagula lurraldean. Urtez urteko azterketa egiten badugu, ikusiko dugu bi sektoreok enplegu handia sortzeko gaitasuna daukatela, merkataritzak urte batetik bestera %15eko hazkundera izan du enpleguan eta ostalaritzak %31a.

Nik uste honetaz argi eta garbi hitz egin beharra daukagula. Hau posible da eta gure Hiriak enplegua sortzeko duen gaitasuna posible da, besteak beste, Hiri erakargarria garelako. Eta horrek eragozpenak sortu ditzake, jakina, kudeatu beharrekoak, baina baita aukera handiak ere, baliatu beharrekoak.

Datu asko eman daitezke, gure jardunbidearen oinarri izan beharko luketenak, baina ez noa horretan luzatzera.

Eta ez da nire asmoa Hiriak dituen arazoak ukatzea, horiek ere baditugulako, eta ez dira nolana hikoak. Besteak beste zahartze prozesuak daraman bilakaera geldiezin, atzeritik datozenek zorionez leuntzen dutena baina geldiezin dirudiena. Edo baita kohesio arazoak ere, aberastasuna ez baita beti modu egokian banatzen. Horiek izan behar dute gure etorkizuneko erronkak, azkar aldatzen ari den mundu konplexu honek planteatzen dizkigunekin batera.

Hori da hain zuzen ere gure Gobernu Egitasmoan jasotzen diren konpromiso nagusien zergatia.

3.- Donostiarrekiko konpromiso nagusiak:

a) Donostiarrak eta Donostiako auzoak jardun politikoaren erdigunean kokatzea

Nuestro objetivo no es otro que el de trabajar por una Ciudad a la medida de las personas, con barrios cuidados, servicios públicos de calidad, bien conectados con transporte público y con espacios urbanos más humanos, amables y accesibles. Barrios que además sean seguros y en los que el cuidado de sus habitantes en todas las etapas de su vida sea una prioridad.

Konpromiso honen barruan, hainbat dira legealdi honetan zehar landu nahi ditugun proiektuak.

Mantenuaren arloan, dauden beharrei erantzuteko talka planak egitea eta doitzea da gure helburua, Udalak dituen Departamentu ezberdinekin elkarlanean eta baita hiritarrekin elkarlanean, dituzten lehentasunei erantzunaz.

Amarako auzoan egindako aktibazio eta hobekuntza planen eredia eta Ekialdeko barrutirako Plan estrategikoaren eredia gainerako auzoetara zabaltzen joatea da gure helburua, auzoak hobetuko dituzten jarduketak horien arabera programatuaz.

Auzoetan bizitza kalitatea hobetzen laguntzeko beste elementu garrantzitsu bat garraio azpiegituren eragiten duten zaratei aurre egitea da, horretarako, eskudunak diren erakundeekin batera neurriak har daitezten lan egingo dugu. Jadanik horretan dihardugu, besteak beste ETSrekin topoak Amarako auzoan eragiten duen zaratari irtenbideak bilatu nahian.

Auzo irisgarriagoen aldeko apustua egiten dugu, beharrezkoak diren hobekuntzak eginaz, aurre ikusitako igogailuak jarriaz, besteak beste Heriz Pasealekuan, Alai Alden edo Autonomia eta Osasun kalean.

Horretaz gain, gure asmoa da egun indarrean den mugikortasun bertikaleko plana berrikustea eta eguneratzea.

Apostamos porque Donostia y sus barrios sean seguros. Para ello resulta necesario intensificar la colaboración entre Guardia Municipal y Ertzaintza, formar adecuadamente a nuestra Guardia Municipal en áreas específicas de seguridad (ciberdelitos) y protección civil.

Del mismo modo, planteamos la actualización de los planes de emergencia y protección civil y la firma de nuevos convenios de colaboración para servicio de protección civil y emergencias.

Hiri bizi bat gertuko merkataritza duen Hiria da, eta helburu horrekin gertuko merkataritza laguntzeko ekimenak burutzen jarraituko dugu. Horren adibide da aurreko astean bertan aurkeztutako ekindenda programa, merkataritza ekintzaileei laguntzeko asmoz.

Esan dut gure helburu nagusienetako bat gure hiritarren zaintza bermatzea dela. Horretarako ezinbesteko tresna diren Gizarte Zerbitzuetako Zentruak ditugu, horien hobekuntza eta zabalkuntza dugu helburu.

Komunitatearen esparruan daukagun Erlauntza programaren dinamika indartu nahi dugu, auzoz auzo sortzen diren beharrei erantzuna agente ezberdinekin elkarlanean gauzatzeko.

Jakina da gure Hirian adineko pertsonen kolektiboa geroz eta zabalagoa dela. Eta horrek arreta berezia eskatzen du, eskaintzen zaien arreta hobetuaz, bai etxean daudenena, etxez etxeko laguntzaren bitartez, eta baita ere gizarte zentruetan daudenena. Hori izango da legealdi honetan gure alegina.

Esparru honetan oso garrantzitsua da Jubilatuen elkarteek gure Hirian egite duten lana, horregatik, gure helburua da dituzten egoitzak berritzea, bereziki Gros auzoan, Amaran eta Erdialdean eta euren lanari Udaletik laguntza eskaintzea. Honen barruan

ere, gure asmoa da egoitzetan eskaintzen den Goizaldia auzo ezberdinetara zabaltzen joatea.

En el ámbito de los cuidados, es nuestro objetivo mejorar y reforzar los programas de prevención, atención, intervención y protección de la infancia y especialmente de familias y menores en situación de desprotección y pobreza. Para ello, próximamente contaremos con un nuevo espacio en HESTIA que esperamos pronto sea una realidad.

En lo que a juventud se refiere, nos ocupa y preocupa especialmente la atención a la salud emocional, dado que todos los datos nos indican que esta es una cuestión que merece especial atención. Resulta imprescindible a tal fin trabajar conjuntamente con otras instituciones y agentes referentes para realizar un adecuado diagnóstico y seguidamente desarrollar un plan de acción y diversas iniciativas.

Bada gai bat azken urte hauetan erronka garrantzitsu bilakatu zaiguna, gure inguruan oro har ematen ari den fenomeno da, gure Hirian ere isla duena. Gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonen arretaz ari gara.

Fenomeno hau nagusiki, Caritasek berak ezagutzera eman duen azken txostenak adierazten duen bezala eta gure gizarte zerbitzuek ikusten duten bezala, atzeritik datozen gazteen artean ematen ari den fenomeno da. Fenomeno konplexua da, baina erantzunak eskatzen dituena.

Batetik, beharrezkoak diren baliabideak eskainiaz, HESTIA berria izango den moduan, edo OTORDUAK programa zabalduaz. Baita ere gizarte larrialdien zerbitzua bermatuz, ahalik eta azkarren erantzun egokia eman dezaten.

Pero además de todo esto, resulta absolutamente imprescindible trabajar en concurso con otras administraciones para procurar que estas personas puedan tener un itinerario que les permita integrarse en nuestra Ciudad, facilitando que tengan

acceso a la vivienda, a un itinerario formativo y de ese modo, acceso al mercado laboral. Necesitamos seguir impulsando y ampliando programas como TRAPEZISTAK, KUVU o IRAULI junto con el Gobierno Vasco para dar respuesta a una realidad que está hoy muy presente en nuestro País y en nuestra Ciudad.

Atal honekin amaitzeko, gure auzoetan behar bezalako bizitza kalitatea bermatzeko funtsezkoak diren bi zerbitzu aipatu nahiko nituzke. Hauek ez dira berez udalaren eskumenekoak, baina udalak bere ekarpena egin dezake egokiak izan daitezen.

Batetik ikastetxeen hobekuntza legoke. Horretan, gure asmoa da Hirian dauzkagun ikastetxeak hobetzen jarraitzea. Hor dauzkagu adibidez patioen diseinu berriak. Bidean dira Ibai Ikastolakoa, Aiete Ikastetxekoa, Ategorrietako Zuhaizti ikastetxekoa edo Amara Berri Urbietako Ikastetxekoa. Jaurlaritzarekin elkarlanean ikastetxe gehiago eraldatzea da gure helburua.

Bestetik, osasun zerbitzuak. Epe laburrean Erdialdeko anbulatorio berria izango dugu, eta gure apustu nagusia da orain Txomineneakoa bultzatzea, zonalde horrek izan duen biztanle hazkundeari erantzun egokia eman diezaion.

b) Gizarte-kohesioa lortzeko kalitatezko enplegua lortzea

Nire hitzaldiaren hasieran aipatu ditud zeintzuk diren Hiriak enpleguari dagokionean eskaintzen dizkigun datuak. Ez dira txarrak, baina hobeak izan daitezke.

Bereziki badira lana topatzeko zailtasun handiagoak dituzten kolektiboak. Hauek dira, gazteak, 45 urtetik gorakoak eta emakumeak. Kolektibo horiek dira beraz arreta berezia eskatzen digutenak, Horretarako daukagun tresnarik garrantzitsuena Sustapen Elkartea da, kolektibo espezifikoei programa bereziak eskainiz.

Hor dago ere Gipuzkoako Foru Aldundiak bazterkeria egoeran dauden gazteei zuzendutako ELKARREKIN LANEAN estrategia, Udalarekin elkarlanean garatuko dena.

Aukerak sortzen duen Hiri bat eraikitzen jarraitzeko ezinbestekoa da garbi izatea zeintzuk diren Hiriak dituen indarguneak eta horiek lantzea.

Gure lehen erronka hezkuntza arloan ekintzailtza sustatzen jarraitzea da, hezkuntza arloan dauden eragileekin adostuta, bereziki zientzian, teknologian, ingeniaritzan eta matematikan bokazioak sustatzeko. Zalantzarik ez dago etorkizun hurbilean lan merkatuak behar horiek hasetu beharko dituela, eta aukera berriak sortuko direla.

Ikusentzunezko arloa bada gure Hirian indarra hartzen joan den esparrua ere. Gure helburua da sorkuntza eta ekoizpen ekosistema bat eratzea, inbertsioak, talentua, industria eta enplegua erakarriko duena. Horretarako behar beharrezkoa da dauzkagun eragileen artean aliantza estrategikoak lantzea. Alegia, Donostia Kultura, Tabakalera, 2deo, Zinemaldia, EITB eta gainerako eragileekin batera.

El Parque tecnológico y la actividad que se desarrolla en el mismo es otro de nuestros objetivos prioritarios. Ante el intenso crecimiento de actividades que se está produciendo en el mismo, resulta imprescindible trabajar para facilitar su ampliación. En este momento estamos trabajando con la dirección del parque para que Illumbe pueda integrarse en el mismo, dotándole así de nuevos espacios que resultan tan necesarios.

Del mismo modo, estamos trabajando con el propio parque y con la Fundación Kutxa para, en un futuro, poder ampliar los espacios del parque hacia Galarreta.

Pero además del parque tecnológico, la Ciudad necesita nuevos espacios para la implantación de nuevas actividades. Algunas ya son una realidad, o lo serán en breve. Por ejemplo es el caso

de Eskusaitzeta, el mayor polígono industrial de Gipuzkoa que se va completando a buen ritmo. Para dar una buena respuesta a la demanda existente hay que poner en marcha ya la última fase de su urbanización. En lo que respecta a esta polígono en el que ya hay muchas personas trabajando, surge la necesidad de dotarlo de transporte público. Lo haremos en colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Azkeneko Osoko Bilkuran onartu genuen Belartzaren planeamendua. Bertan ere aukera berriak sortzen dira. Jarduera industrial, logistiko eta zerbitzu berriekin.

Zuhatzuk ere hazteko aukera izango du Inpernuaren aldera. Aurreko legealdian Papin poligonoaren erabilera aldatu genuen, industrialala izan zedin. 2016. urtean irekitako bide berriak aukera berriak eskaintzen dizkio poligono honi. Azkenik, 27. poligonoa ere zaindu beharra daukagu. Aldundiak Astigarraga aldera egindako errepide berriak lehiakorragoa egiten du poligono hau.

Laburbilduta, garrantzitsua da jarduera berriak erakarri ahal izateko lurak eskaintzeko gaitasuna izatea, eta hori Donostian errealitatea da. Gai hau ere oso kontuan izan beharko dugu HAPO berriaren onarpenean, eskaintza berriak sortuz.

Ikerketaren arloa da gure Hirian garrantzia hartu duen beste jardueretako bat. Donostia laster izango da munduan dauden 6 ordenagailu kuantikoetatik bat izango duen Hiria. Ibaetan martxan dira ordenagailua jasoko duen eraikinaren lanak. Laster izango dira ere martxan DIPCren handitze lanak.

Hiri bezala ikerketari egiten diogun ekarpen gisa Talent House II aipatu nahiko nuke, urte honen amaierarako errealitate izatea espero duguna.

Aukerak sortzerako orduan ezin ahaztu dezakegu gure Hiria Zerbitzu Hiria dela batez ere, eta atal honetan pisu nabarmena daukate merkataritzak eta ostalaritzak.

Horiek zaindu egin behar ditugu, gure auzoak bizi mantentzeko gaitasuna dutelako eta gure Hiriak duen erakartzeko gaitasunaren arrazoi nagusienetako bat direlako.

En lo que a hostelería se refiere, queremos actuar en el ámbito de la regulación en aras a lograr un desarrollo ordenado y equilibrado del sector, haciendo compatibles el crecimiento, el uso de espacios públicos y el derecho al descanso de la ciudadanía. A tal efecto, propondremos al Pleno la aprobación de una nueva ordenanza para regular la apertura de establecimientos hoteleros en función de las distancias. El objetivo de esta nueva ordenanza no es otro que el de evitar la generación de zonas saturadas que luego dan tantos problemas.

Del mismo modo, plantearemos al Pleno la modificación de la actual ordenanza de instalación y mantenimiento de terrazas, procurando un adecuado equilibrio en el uso del espacio público.

En relación al comercio, nos marcamos el objetivo de revitalizar diversas áreas comerciales de la Ciudad.

Por una parte el entorno de ARCCO Amara, peatonalizando Gregorio Ordoñez y reordenando la Plaza de Irun. Del mismo modo, la materialización del futuro centro comercial de San Bartolomé representa una oportunidad para revitalizar comercialmente la zona del centro a la que pertenece el Barrio de San Martín.

Con carácter general, y en colaboración con la Federación Mercantil y las diversas asociaciones de comercio de la Ciudad, seguiremos generando dinámicas que pongan en valor el comercio donostiarra, a través de bonos, campañas, mercados, etc.

Gaur egun merkataritzak duen erronka nagusienetako bat errelebo faltarena da, zalantzarik gabe. Horregatik ezinbestekoa zaigu errealitate horri erantzungo dieten neurriak hartzea,

eskualdatze planak bultzatuz, formazioa baliatuz eta alokairurako laguntzak eskainiz.

d) Gaztetutako Hiri batetan bizitzea eta gozatzea

Gaur egun Donostia berrikuntza prozesu batetan murgilduta dago. Horren adierazgarrietako bat da HAPO berriaren idazketa eta onarpen prozesua. Horren bitartez gure asmoa da Hiri beste begirada batekin eraikitzea, hirigintza iraunkorraren bitartez, gune urbanoen kalitatea bilatuz eta arkitektura berritzailea sustatuz.

Guztiok bat gatoz etxebizitza berriak sortzearen helburua dela une honetan esku artean daukagun erronkarik handienetakoa. Gure helburua da 2033rako 6.000 etxebizitza berri sustatzea.

Gogoeta honi lotuta, HAPO berriaren eztabaida eta onarpen prozesuari buruzko gogoeta partekatu nahiko nuke. Une honetan aurrerapena onartzear daukagu oraindik. Badakigu Plan Orokor berri baten prozesua luzea eta sakona dela. Bertan izango dugu gai ezberdinetaz eztabaidatzeko eta hausnarketa egiteko aukera. Hori aberasgarria da beti Hiri batentzat, egin dezagun beldurrik gabe eta ahal bada aurre iritzi gehiegirik gabe.

A lo largo del proceso de aprobación del nuevo plan general tendremos la ocasión de debatir y contrastar sobre Auditz Akular o el futuro de nuestra variante. Ninguna solución está definida ni decidida, y creo que es apasionante el que se nos brinde la ocasión para poder reflexionar, debatir y proponer sobre éstas y muchas otras cosas. Aprovechémoslo.

Etxebizitza berriak sortzearen helburua hurrengo atalean azalduko ditudan Hiriko proiektu nagusien barnean kokatu dugu gure Gobernu Egitasmoan, beraz aurrerago jardungo naiz horietaz.

Atal honetan aipatu nahi nuke ordea gure asmoa dela Etxebizitza Plan Zuzentzailea berritzea, hiriak egun dituen beharrak eta etorkizunean izango dituenak jasoaz. Horrekin batera, aurreko asteko agerraldia adierazi nuen moduan, gure asmoa da Estatuko eta Erkidegoko Etxebizitza legeek eskaintzen dizkiguten tresnak baliatzea, egun daukagun egoera hobetzeko tresnak diren heinean. Horien artean leudeke zonalde tenkatu izendapena edo hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko neurriak.

Etxebizitzaren alorrari dagokionean, gazteenei begira apartamentu dotazionalak garatuko ditugu Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean.

Goatzeko Hiria eraikitzeke konpromiso horren barruan arreta berezia merezi dute gure kultura jarduera aberatsak eta baita gure kirol jarduera indartsuak ere. Eta nola ez, gure apustu garbia da Donostia Euskararen Hiria izaten jarraitzea, hori horrela izan dadin daukagun erronkarik handiena erabileran lanean jarraitzea da ezbairik gabe.

Hiriak duen kultura eskaintza aberatsaren bizkarrezurra gure Kulturetxe sarea da. Horiek zaindu eta berritzen jarraitu behar dugu. Baita ere Hiriaren hazkunde nagusia ematen ari den guneetan sortzen ari diren behar berriak aztertu beharko ditugu legealdi honetan zehar, erantzunak eskaintzeko helburuarekin. Urumearen ibarrak eta Añorgak dute azterketa horren behar nagusia.

Bidebietan egun dagoen Kontadores gunea gune zibiko eta kultural bilakatzeko prozesua martxan jarri nahi dugu.

Azkenik, Pio XII. Plazan dagoen Gobernu Zibilaren eraikina hiriarentzat eskatzen jarraituko dugu.

Gure Antzokiei dagokienez, euren kultura eskaintza handitzen lagunduko duten berrikuntza lanak burutuko ditugu. Nagusiki

ekipamenduak Victoria Eugenian eta irisgarritasuna Antzoki Zaharrean.

Gure Hiriak dituen jaialdi handien inguruan gogoeta egin nahi dugu, bereziki publiko berriek planteatzen dizkiguten behar eta gustu berriei hobeto erantzuteko.

Bertako sorkuntza sustatzea da kultura arloan gure buruari jartzen diogun helburuetako bat. Hirian dauzkagun eragile ezberdinekin elkarlanean, bai publikoak eta baita pribatuak ere. Horren adibide dira Argi Artean, Museo Bikoitza, Arte Abian edo Donostia Apain bezalako ekimenak.

Musika eta Dantza Eskolak berebiziko papera jokatzen du gure haur eta nerabeek artearekin lehen harreman bat izan dezaten. Hori dela eta, eskaintza beharrei egokitzeko apustua egiten dugu.

Y en este apartado me gustaría hacer mención al Conservatorio de Música Francisco Escudero. Es por todos conocido que el Conservatorio (al igual que el edificio que actualmente lo alberga) es propiedad del Gobierno Vasco. Por lo tanto, es responsabilidad del Gobierno Vasco atender las necesidades que tiene este Conservatorio, y que son grandes.

Dicho esto, creo que las instituciones públicas estamos obligadas a colaborar para tratar de buscar soluciones a los problemas que se nos plantean. Es por ello que en este momento estamos replanteando el proyecto que se está ejecutando en esta Casa Consistorial. La posibilidad de implantar Udalinfo en el Ayuntamiento junto con la Oficina de Turismo nos permite ofrecer espacios al Gobierno Vasco en la Calle Easo para que pueda acometer lo antes posible la ampliación y renovación del actual Conservatorio. Estamos trabajando intensamente en ello.

Eta nola ez, hiri bizi batetan Kirolak ere sekulako garrantzia dauka. Osasuntsua izateaz gain. Donostia Kirolak dituen azpiegiturak hobetzen eta berritzen jarraituko dugu. Baita Kirol

Txartelak eskaintzen dituen prestazioak zabaltzen, pandemia aurreko abonatu kopurua berreskuratzeko asmoz

Horrekin batera, kalean kirola egiteko instalazioak bultzatuko ditugu. Adibidez, Anoetako Skate parka edo parkour eta kalistenia instalazioak (Azken hau Bentaberrin egina dago).

Kirol ekitaldiei dagokionean, Hiriak kirol ekitaldiak erakartzeko duen gaitasuna lantzen jarraituko dugu, eta bereziki 2030ean ospatzekoa den Futbol mundialak Donostia egoitza bat izan dezan buru belarri lanean jarraituko dugu Errealarekin batera.

Azkenik, baina zinez garrantzitsua, gure Hiriak kirolaren arloan duen ezaugarri berezietako bat aipatu nahiko nuke: Berdintasunaren aldeko borrokan daukagun tresna indartsuenetakoa dela. Lehen kategorietan lehiari dauzkagun emakumez osaturiko taldeen kopurua benetan harrigarria da gure Hirian. Eta hori harro egoteko moduko gauza da. Horrek eskatzen digu apustu garbia egitea, Klubekin elkarlanean eta ikastetxeekin elkarlanean, Gure Hirian oinarritik eliteraino emakumeen kirola sustatuz.

e) Partekatzen dugun Hiri baten alde elkarrizketa eta konplizitatea lortzea.

Donostia Hiri anitza da. Hiri irekia gainera. Ikuspegi ezberdinak dituzten hiritarrek osatua. Hori horrela izanik, ezinbestekoa da parte-hartzea sustatzea eta demokrazia etengabe lantzea.

Pensar diferente, opinar diferente nos enriquece como Ciudad. Y creo que en democracia es importante que sepamos articular foros de participación, de debate y de contraste para que los diversos pensamientos y opiniones tengan su cauce. Esa va a ser nuestra apuesta como Ayuntamiento. Pero tan importante como eso es que seamos capaces de respetar las reglas de juego que nos marca nuestro sistema democrático. El respeto y la tolerancia son para ello valores fundamentales. Y no voy a

negar que en la actualidad existen dinámicas que ponen en cuestión esos valores. Dinámicas peligrosas que me preocupan, y que creo no deberíamos alentar, porque nos pueden llevar a consecuencias que creo, nadie deseamos.

El debate sobre las ideas, los proyectos o las propuestas es positivo, pero tras el oportuno contraste y el debate, corresponde al Ayuntamiento tomar decisiones, conforme a las reglas democráticas de las que nos hemos dotado.

El compromiso con los valores democráticos se ha convertido ya en una de nuestras principales señas de identidad. Y continuaremos reforzándolo con iniciativas para la difusión de los Derechos Humanos, en defensa de la memoria de las víctimas del terrorismo y de la violencia y de lucha contra actitudes homófobas y transfobas que vulneren los derechos del colectivo LGTBI+.

Berdintasuna da Udalak dituen lan esparru guzti guztiak zeharkatu behar duen beste ardatzetako bat. Genero ikuspegia politika publiko guztietan txertatzea, emakumeentzako kalitatezko enplegua sustatzea, hala nola sexu eta genero indarkeriaren aurka borrokatzea izango dira legealdi honetako lan esparru nagusienetakoak

Gobernu onaren aldeko apustua berresten dugu, euskararen normalizazioaren alde eginaz, zailtasunak zailtasun eta epaiak epai.

Parte hartzearen atalean, parte-hartze ereduaren birmoldaketa batetan murgilduta gaude. Horretarako ba dira denbora honetan landu ditugun proiektuak eta eredu izan daitezkeenak. Adibidez, Amara Berrin eta Loiolako Erriberako auzoan abian jarri diren Auzo Mahaien eredia beste auzo batzuetara zabaltzea dugu helburu, eta horrekin batera, Auzoz Auzo izeneko bilerak auzoko elkarte eta auzokide guztiei zabaltzea. Horrekin batera, migratzaileen parte-hartzea indartzea ezinbestekoa da, geroz eta anitzagoa den Donostian patehartzea guztiona izan dadin.

Gazteen partehatzea sustatzea ere garrantzitsua da, eta hori, ikastetxeekin elkarlanean burutu nahi dugu.

La defensa y promoción de todos los Derechos Humanos para todas las personas es otro de los signos de identidad de Donostia en el que queremos seguir profundizando. Con iniciativas como el Festival de Cine de Derechos Humanos, todas las actividades relacionadas con la memoria histórica, así como el reconocimiento a todas las víctimas del terrorismo y de la violencia en nuestra Ciudad. En este apartado, seguiremos con la colocación de las placas que recuerdan a las víctimas en nuestra Ciudad y estudiaremos en el seno de la Comisión de Derechos Humanos nuevas iniciativas que puedan ser compartidas.

Esparru honetan gure Hirian geroz eta garrantzi handiagoa dauka kultura ezberdinen arteko elkarriketa bultzatzeak. Gure Hiria geroz eta aberatsagoa da, jatorri ezberdineko donostiarrez osatua. Eta hor gure helburua da elkarte ezberdinekin elkarlanean kohesiorako ekimenak bultzatzea.

Gizon eta Emakumeen arteko erabateko berdintasunaren aldeko konpromiso garbia dauka Udal Gobernu honek. Hori dela eta, gure asmoa da Udaleko esparru guztietan, gobernuan eta hiriaren egunerokoan berdintasuna txertatzen jarraitzea.

Bide horretan, emakumeentzat segurua den Hiria eraiki behar dugu, emakumeen aurkako biolentzia oro borrokatuaz. Puntu beltzak hobetzea eta emakumeen aurkako erasoak saihesteko edukazio eta prebentzio kanpainak bultzatuko ditugu.

Sexu erasoak sufritzen dituzten biktimak hartatzeko protokoloa egonkortu eta hobetuko dugu, egoera hauen aurrean erantzun azkarra eman ahal izateko.

Reconociendo el trabajo que ha realizado durante estos últimos años emakumeen etxea, plantearemos en esta legislatura su

traslado a una nueva sede en la calle Amara, para lo cual promoveremos una reflexión abierta que nos ayude a diseñar este recurso de forma compartida y dando buena respuesta a las necesidades que se plantean.

Donostia elkartasun Hiria dela ez dago zalantzarik, hori dela eta kooperazioan aurrekontuaren 0,7ra iristeko pausoak ematen jarraituko dugu.

Udala gure Hiriaren aurrerabiderako daukagun tresna nagusia izanik, Gobernu onaren aldeko apustua egiten dugu. Horrek, gure egunerokoan hobetzea eskatzen digu. Horretarako, finkatu ditugun helburuen artean, Udaletxeko plantillaren behin behinekotasun tasa %8tik behera jeistearena dago, besteak beste 2023 eta 2024 urteetan Enplegu Eskaintza berriak burutuaz.

Hiritarrei eskaintzen diegun arretan ere hobetzea dugu helburu, bai era presentzian eta baita telefonoz edo telematikoki. Udalinfo Udaletxera ekartzeak horretan lagunduko gaitu ez bairik gabe.

Gardentasuna eta Iruzuraren aurkako borroka dira Gobernu onaren beste ezaugarri nagusienetakoak. Esan beharra dago atal hauetan asko egin dela aurrera azken urteotan. Gaur egun, Gardentasun mailan Donostia Estatuko lehen hiru hiriburuen artean kokatzean da, eta iruzurraren aurkako borrokan Plana jadanik osatuta dago.

Azkenik, oso garrantzitsua da Udal Finantzak egoera onean izatea. Hori hala da gaur egun Donostiako Udalaren kasuan. Eta horri esker posible izango zaigu hiriarentzat berebizikoa den operazio bat aurrera eramatea: Loiola Koartelen erosketaz ari naiz.

Baina horretan zuhurrak izaten jarraitu beharra daukagu, kudeaketa arduratsu baten bitartez.

f) Hiriaren etorkizun iraunkorra eraiki

Etorkizunari begiratzen diogunean, Hiri guztiak gaude garapen iraunkorraren aldeko apustuan. Garapen iraunkorra ekonomiari dagokionean, ingurugiroari dagokionean, eta baita gizarte politikari dagokionean ere.

La lucha contra el cambio climático tiene en la movilidad sostenible uno de los principales ejes de actuación. Debemos seguir haciendo un gran esfuerzo por promover el transporte público. Eso nos permitirá, por una parte una notable mejora de nuestro entorno urbano, así como reducir la contaminación atmosférica y reducir las emisiones de CO2.

Estamos en la legislatura que verá el resultado de los grandes cambios que en este momento se están ejecutando. Las obras del Topo avanzan en este momento sobre lo previsto, y parece que por fin empezamos a vislumbrar su final. Aunque todavía quedan cosas pendientes, la mas importante de ellas el intercambiador de Riberas de Loiola.

Soy consciente de los inconvenientes que ha ocasionado esta compleja obra en algunas zonas de nuestra Ciudad, pero no tengo duda de que el resultado habrá merecido la pena. Al tiempo. Altza Galtzaraborda y los dos tramos de la pasante serán realidad en un par de años, dotándonos de un potente servicio de transporte público que nos va a abrir muchísimas posibilidades. Pero que también nos va a exigir repensar y replantear los distintos modos de transporte público con los que cuenta la Ciudad. Y el objetivo es claro: Que el peso que hoy representa el transporte público en Donostia crezca, y lo haga además de forma considerable. Solo así podremos dar una respuesta efectiva al gran reto que tenemos planteado.

Horrek behartuko gaitu Erakundeen elkarlanaren bitartez, gure Hirian eragiten duten operadore nagusien zerbitzuak birpentsatzea eta diseinatzea. Alegia, ETS, Dbus eta

Lurraldebus dira horiek. Guztien artean gaur Donostiak duen garraio publiko eskaintza gehitu eta hobetu behar dugu.

Eta ez dut ahaztu nahi ADIFek eta Renfek apustu horretan daukaten garrantzia. Abiadura handiko Tren geltokiaren lanak aurrera doaz, Geltoki berriak gune publiko berri bikain bat izatea ahalbidetuko digu, Gipuzkoa plazak duen tamainako plaza berri batekin. Gure helburua da plaza hori parke bat izan dadila, Hiria erdigunean berdegune berri bat sortuaz.

Baina geltokiarekin batera, Donostiatik Iruna doan trenbidean hirugarren burdinbidearen lanak ere aurrera jarraitzen dute. Aurre ikusita dagoen epean amaituta, horrek posible egingo luke legealdi honetan Donostiatik Baionara bitartean zerbitzua eskainiko lukeen trenbide bat martxan jartzea. Horrek berebiziko garrantzia dauka bai Donostiarentzako eta baita Eurohiriarentzako ere. Horren aldeko apustu garbia egin beharra dauka Donostiak.

Baita etorkizuneko proiektuen alde ere. Loiolako Erriberako trukagailua, Topoak amaran duen ibilbidearen estalketa edo Martuteneko tren geltoki berria eta Txomineneako geltokiaren moldatzea dira hurrengo urteetan aurrera atera beharko ditugun batzuk.

Guri dagokigunean, hasita dagoen Dbusen elektrifikazio prozesuarekin aurrera pausu garrantzitsuak emango ditugu legealdi honetan, iraunkortasunaren aldeko konpromisoarekin bat eginaz.

Garraio publikoari dagokionean ere, taxi zerbitzuak eskatzen duen hobekuntza aipatu nahiko nuke. Egun daukagun eskaintza handitzea eta hobetzea ezinbestekoa suertatzen da. Aurreko legealdian hasi genuen Zona Bakarraren proiektua burutu beharra dago, egun daukagun eskaintza handitu eta hobetu ahal izateko.

Mugikortasunaren alorrean, ezinbestekoa da egun daukagun azpiegitura hobetzea eta modu eraginkorrean diseinatzea.

Marrutxipiko lotuneak aukera hori eskainiko digu, sarrera-irteera berri baten bidez, bereziki Ibaiak duen trafiko handia arintzen lagunduko digularik.

Baina ba dira mugikortasuna hobetzearen helburuarekin landu beharreko beste proiektu garrantzitsuak ere. Anoeta inguruan, ETSrekin elkarlanean eta geltoki berriaren lanen barruan Aita Donostia plazaren birmoldaketa hasita dago. Easoko trenbideak libre utziko duen lurretan egiten diren garapenetan mugikortasun azpiegitura ondo diseinatzea ezinbestekoa izango da.

Eta azpiegiturekin batera, trafikoaren kudeaketan ere hobekuntzak egitea ezinbestekoa da. Panelen bitartez Hirian ditugun parkinen egoerari buruzko informazioa eskainiz, edo eman daitekeen edozein egoerari buruz informazio eguneratua eskainiz.

Horrekin batera, une jakinetan ematen diren egoerei erantzun egokia eskaintzeko, kokapen ezberdinetan aparkaleku disuasorioen plana martxan jarriko dugu, garraio publiko eskaintzarekin koordinatuta.

Y todo esto sucederá a la vez que se produce la implantación de la Zona de Bajas Emisiones. Es de todos sabido que nuestra Ciudad está obligada por Ley a implantar una Zona de Bajas Emisiones. Y así lo haremos. Y creo sinceramente que tenemos tiempo para hacerlo bien y para hacerlo de una forma sensata, sin generar situaciones traumáticas.

En el Pleno de la semana pasada la Concejala Delegada de Movilidad desveló que tenemos hasta el 31 de Diciembre del año que viene para implantarla. Ahora toca aprobar la determinación de la Zona y el Plan de Movilidad Urbana Sostenible. Posteriormente plantaremos al Pleno una ordenanza que será la que establezca las limitaciones que sean pertinentes.

Alguien dijo en el anterior pleno que íbamos tarde. No estoy de acuerdo. Sinceramente creo que por las características que

presenta nuestra Ciudad tenemos margen para hacerlo. No creo que la ansiedad, ni en este tema ni en ningún otro sea la mejor receta para actuar con sensatez.

Donostia presenta hoy niveles óptimos de calidad del aire, que todos queremos mejorar, por supuesto. Pero que debemos tratar de hacerlo de forma proporcionada. Sin exageraciones. Y nuestra propuesta irá en esa línea, será una propuesta razonable y gradual.

Mugitzeko beste modu batzuei aipamena egin nahiko nieke orain. Oinezkoei eta bizikletari bereziki. Biak mugitzeko modu iraunkorrek eta gainera osasuntsuak direlako. Horiek sustatzen jarraitu beharra daukagu.

Hori horrela izan dadin, gure Hirian oinezkoentzako gune berriak berreskuratu behar ditugu, bere garaian Kontxako pasealekuarekin egin genuen bezala. Aipatu beharrik ez dago Topoaren obren amaierak aukera hori baliatuko digutela, Artzain onaren katedralearen inguruan, Easo kalean etab. Horrekin batera gure asmoa da oinezkoentzako izango diren kale gehiago moldatzea, finean bizitza kalitate hobea ahalbidetuko duten kalitatezko gune urbano berriak.

Bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzeak hainbat apustu egitea eskatzen digu. Bidegorri sarea osatzeaz gain, Urumean, Herrera, Altzan edo Lugaritzen, egun daukaguna hobetzea dagokigu. Besteak beste, legealdi honetarako helburu gisa finkatu dugu Boulebarretik Zurriolara doan bidegorria hobetzea, Bretxaren parean duen zati arriskutsu hori konponduaz eta kalearen beste aldetik eramanez.

Dbizi sistema arrakastatsua eredu da gure Hirian. Egindako azken zabalkuntzak gainera inoiz izan den erabiltzaile kopururik handiena izatea lortu du. Bide horretan, sistema inguruko herrietara zabaltzea da gure helburua, metropolitanoa izango den zerbitzua baliatuz.

Azkenik, bizikletaren alde egiten dugun apustu horren barruan, norberarena den bizikletek gure Hirian ibiltzeko erraztasunak sustatu nahi ditugu, orain arte egin diren aparkaleku seguruen sarea handituz.

Baina bizikletaz ari garen honetan, benetan garrantzitsua iruditzen zait bizikidetzari dagokionean ardura berezia izatea. Arauak errespetatu egin behar dira eta errespetatuarazi behar ditugu, bakoitza dagokion lekutik joanda.

Gainean daukagun aldaketa klimatikoak eskatzen digu dauzkagun azpiegitura berdeak zaintzen eta hobetzen lan egiten jarraitzea. Finean, gure azpiegitura berdeek airea hobetu eta beroaldietan lagundu gaitzakete. Hirian, babesleku klimatikoen mapa egitera goaz eta baita ere daukagun zuhaitz kopurua handitzea, azken urteotan egin dugun bezala.

Zabor bilketaren esparruan, bilketa selektiboa indartzeko beharra daukagu. Bai biztanleen artean eta baita merkatariekin eta ostalariekin lan eginaz. Egun dauzkagun portzentaiak hobetu behar ditugu, pizgarrien bitartez eta kontrolen bitartez.

Uraren zikloari dagokionean, legealdi honen helburu nagusienetakoa da Loiolako EDARraren proiektu berria lantzea eta gauzatzea. Azpiegitura hau zaharkituta dago gaur ditugun beharrei erantzuteko. Proiektu berriaren idazketa abian da Añarbeko ur partzuergoaren laguntzarekin, orain, Estatuaren aurrean proiektua defendatzea eta aurrera eramatea dagokigu.

Azkenik, iraunkortasunaren atal honetan, energiari aipamena egin nahiko nioke, gai hau erabat funtsezkoa delako bizi dugun transizio garai honetan. Etxebizitzen eraldaketa da aurrean dugun erronka nagusienetako bat. Jadanik Altzan garatzen ari den proiektuak beste auzo batzuetara ere zabaltzea litzateke gure helburua, etxebizitzetan ematen den energia kontsumoa gutxitze aldera honela, iturri honetatik datozen isuriak gutxituz. Horrekin batera, Udaletxetik energia komunitateak sustatuko ditugu, iraunkorrakoak diren energia iturriak sustatuz.

4.- Hiri proiektu nagusiak

Azken atalera noa, Hiri proiektu nagusiak izendatu dugun atala. Horietako batzuk aipatu ditut hiriarekiko gure konpromisoa adierazterakoan. Denborak hala eskatuta, batzuek nahi baino azkarrago azalduko ditut. Edonola ere, Udal Gobernu osatzen dugun taldeok adostutako Gobernu Programan ikusi ahal izango ditugu. Eta legealdi osoa izango dugu horietaz aritzeko.

En este último apartado quiero desarrollar los que son los principales proyectos de Ciudad que tenemos entre manos. No me dará tiempo a desarrollar todos, no al menos con la extensión que merecen, pero estoy seguro de que a lo largo de la legislatura tendremos ocasión de desarrollarlos.

Espacios públicos abiertos y accesibles

El nuevo Parque que defendemos en la nueva estación del Tren de Alta Velocidad es ejemplo de lo que buscamos. Con una intervención de la artista donostiarra Esther Ferrer, éste será un nuevo espacio del que podremos disfrutar en la Ciudad. Al igual que la Plaza del Buen Pastor con su nueva configuración tras la finalización de las obras del topo o el nuevo espacio que nos aportará la desaparición de la Playa de vías de Easo en un punto céntrico de la Ciudad, así como el nuevo parque en Okendoalde, sobre la cubierta del edificio GOE. Y también Sagues, cuya definición definitiva nos gustaría poder hacer y ejecutar en esta legislatura.

Seguridad Ciudadana

Donostia es hoy por hoy una Ciudad segura. Lo es en el contexto en el que vivimos, aunque es cierto que el contexto no es en este

momento el mejor posible. Eso nos obliga a reforzar los recursos de la Guardia Municipal para mejorar el servicio de proximidad y atender a nuevas necesidades de un modo mas adecuado. Lo haremos apostando por una policía de proximidad, y en estrecha colaboración con la Ertzaintza.

Turismoa

Donostiak turismoari lotutako historia luzea dauka. Hori, garai batetan egindako aukeraketa baten ondorioa da, ez egun batetik bestera hartutako erabaki bat. Datu bat ematearren, Donostiak 1929. urtean 20.000 alojamentu eskaintzen zituen, orduan Donostiak 78.000 biztanle zituen. Gaur egun, 188.000 biztanlerekin 18.000 eskaintzen ditu. Eta gaur egun etengabe horretaz aritzen gara.

Orain dela egun gutxi, komunikabide ezagun batek etxebizitza turistikoen inguruko azterketa egiten ari zela zera zioen: “San Sebastián, a la cola en densidad entre las ciudades más turísticas”. “Con 9 plazas en pisos turísticos por cada 100 habitantes, la presión de este tipo de alojamientos está lejos del de ciudades como Málaga o Madrid”. Eta gaur egun honetaz ere etengabe aritzen gara, inongo zentzurik ez duen Benidormekin alderaketak eginaz.

Donostiak iraunkortasun eta arduraren aldeko apustu garbia egin du Turismoaren jarduerari dagokionean. Horra hor datuak eta hor ere urte hauetan zehar hartutako erabakiak, bai etxebizitza turistikoei dagokienean baita hotel berrien eraikuntzari dagokionean.

Y ahora, en esa apuesta que hacemos en favor de un turismo sostenible y que aporte a nuestra Ciudad, trabajaremos para que la llamada “tasa turística” sea una realidad durante esta legislatura.

Sinceramente creo que el debate que se está produciendo en este momento sobre el turismo está viciado. Parece que algunos han decidido convertirlo en la fuente de todos males. Y eso no es ni cierto ni justo. Hablamos mucho sobre los inconvenientes que genera la actividad turística, lo cual puede ser cierto. Pero es igual que lo que sucede con otras actividades económicas. Todas generan riqueza, y algunos inconvenientes que hay que saber gestionar. ¿Acaso una papelera en Errenteria no genera inconvenientes en el municipio? ¿O la actividad portuaria del puerto de Pasajes?

Esos inconvenientes hay que tratar de solventarlos, por supuesto. Lo que pasa es que en el caso del turismo a veces parece que lo que se combate es la propia actividad.

Me parece muy legítimo que se plantee un cambio de rumbo en nuestra Ciudad, lo cual quebraría con nuestra tradición histórica, pero a quienes lo hacen les pediría que tuvieran el valor de ser coherentes, que nos señalaran cuál es la orientación que desean para nuestra Ciudad y que obren en consecuencia. No se puede renegar de nuestra historia y presente y defender que tengamos un palacio de congresos o un festival internacional de cine.

Además de la riqueza y el empleo que genera la actividad turística, creo que deberíamos ser conscientes de que la Ciudad que conocemos es como es porque somos una Ciudad con capacidad de atracción. Nuestra oferta cultural, nuestra dimensión comercial y hostelera, de la que nosotros también disfrutamos es posible gracias a la capacidad de atracción que tenemos.

El plan director de turismo fija claramente que no es nuestro objetivo crecer, sino cuidar el destino. En eso nos vamos a empeñar, haciendo frente a discursos turismofobicos, y aprovechando todo lo que ser una Ciudad atractiva nos aporta, entre otras cosas, numerosos empleos y riqueza.

Chillida urtea

2024. urtean Chillida artista handia jaio zela 100 urte beteko dira. Aukera paregabea gure hiriko artista nazioartekoena balioan jartzeko. Prestatzen ari diren erakusketa eta ekitaldiez gain, buru belarri gabiltza bere sorkuntza nagusienetakoa dena behar bezala egon dadin beharrezkoak diren lanak burutzeko. Horretan espainiako kostasek zeresan handia dauka, haizearen orrazia birgaitzeko ezinbestekoa zaigulako beraien onarpena izatea. Aspaldi eskatu genuen baimen hori, baina zoritxarrez oraindik erantzunaren zain gaude. Hau da gai honetan eta kostaldearekin dauzkagun beste gai batzuetan behin eta berriro ikusi dugun jarrera.

Edonola ere, 2024 urtea aukera paregabea izango da gure hiriarentzat, munduari emandako artista handi bat berriro ere balioan jartzeko.

Hori bilatzen du ere proposatzen dugun artearen bideak, Haizearen orrazia eta Chillida Leku lotuko duen bidea.

Bide berdeak

Legealdi honetan burutu nahi dugun beste proiektu garrantzitsu bat hau litzateke. Gure Hiriak parke zoragarriak dauzka, eta hauek, oinezkoentzako ibilbideen bitartez lotu ezker, bide berde paregabea sortzeko aukera izango genuke. Ibilbide honek Ulia, Lau haizeta, Ametzagaina, Cristina Enea, Urumea, Miramon, Urgull eta Igeldo lotuko lituzke, paregabea izango litzatekeen bide berdea sortuaz.

GOE

Soy consciente del debate existente en torno a este proyecto en nuestra Ciudad. Pero creo que también deberíamos ser conscientes de la oportunidad que el mismo representa para que Donostia siga siendo un referente mundial en gastronomía.

Los debates sobre intervenciones urbanas no son nuevos entre nosotros. Basta con buscar en la hemeroteca para ver las posiciones enfrentadas que existían con respecto al Kursaal. ¿Alguien las recuerda hoy en día? Yo sí, y también recuerdo bastante bien en qué posición estaba cada uno, aunque seguramente algunos no lo quieran recordar.

Pero más allá de la intervención urbana, que estoy convencido marcará un nuevo hito arquitectónico en nuestra Ciudad, lo importante es que seamos capaces de mantener una posición de liderazgo como Ciudad en lo que a gastronomía se refiere. Y GOE representa precisamente eso, la apuesta de Donostia, como lo fue en su momento el BCC, por seguir siendo la vanguardia mundial en el campo de la gastronomía.

Ciudad de Ciencia y Conocimiento

Donostia gaur, Zientzia eta Ezagutzaren Hiria da. Aurreko ataletan azaldu dut zeintzuk diren esku artean ditugun erronka nagusienak. Baina horietaz gain, uste dut beharrezkoa dela gure ezaugarria den horretaz jabetzea eta gure Hiriak mundura proiektatzen duen iruditegian ezaugarri hori txertatzea. Horrek sare lana egitea eskatzen digu, gure Hiriak dituen protagonista ezberdinen artean lan eginaz. Horretan Udalaren lidergoa ezinbestekoa da.

Gainera ikuspegi zabalarekin. Ezagutzaren eta Zientziaren Hiria izatea ez delako, inondik inora, halako helburu elitista bat, justu kontrakoa, gure Hirian zientzia eta ezagutzaren garapenak gu guztion ongizatearen mesedetan izan behar duelako.

Illumbe-Anoeta

Legealdi honetan gure buruari jarri diogun beste helburu bat, erreferentziazkoa den Anoetako Kirol Hiriaren berritze prozesuarekin aurrera egitea da. Zalantzarik gabe, Illunbe izan behar da gure Hiriko eta gure lurraldeko erabilera anitzeko pabiloi nagusia. Helburu horrekin ireki dugu Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin negoziazio prozesua, eraldaketa horretan guztion elkarlana behar beharrezkoa suertatzen delako.

Illumberekin batera, legealdi honetan Anoetako Kirol Hiriak dituen beste azpiegiturak berritzea ere badagokigu. Estadio txikia, belodromoa, Atano III. Eta Gaska kiroldegia. Donostiak garai batetan zuen erreferentziazko Kirol Hiria berritzea da gure erronka.

Playa de vías de Easo

El avance de las obras del topo hacen que podamos soñar con un nuevo espacio de oportunidad ubicado en pleno centro de la Ciudad. La playa de vías de Easo. El diseño de este nuevo espacio será uno de los grandes retos que tendremos que afrontar en esta legislatura. Representa una gran oportunidad para coser el centro y Amara, para hacer que el Parque de Araba sea mas grande y para que podamos promover la construcción de vivienda protegida en un centro neurálgico de la Ciudad.

Nuestra intención es la de poder empezar a actuar en este ámbito tan pronto como nos permitan las obras del topo.

Nuevo Plan General

En varios apartados de mi intervención me he referido al proceso de radacción del nuevo Plan General. Y quiero hacerlo también

aqui porque considero que es uno de los principales proyectos de Ciudad que tenemos entre manos, y en el que podremos dibujar la Ciudad del futuro.

Atal honetan, bi aipamen berezi egin nahiko nituzke. Bata Etxebizitzari dagokiona. Hau baita hurrengo urteetan izango dugun erronka handienetarikoa. Udaletxe bezala, gure zeregin nagusia da etxebizitza eskaintza berria sortzea, horietako asko gainera, bizitza babestua. 2027rako 1.900 etxebizitza berri eraikitzea da gure helburua, Hiri lorategian, Txominenean, Inpernuan, Illarran, Igaran, Añorgan eta Martutenen.

2033rako aurre ikusten ditugu Loiolako koartelekoak, Easokoak, Jolastokietakoak, Antzitakoak, Sarruetakoak eta Martuteneakoak.

Guztira beraz 6.000 etxebizitza berri, egun daukagun eskari handiera erantzuten lagunduko gaituztenak.

Plan orokorraren onarpenak aukera berriak eskaini beharko dizkigu arlo honetan ere.

Urumearen ardatza

Donostiak bere hazkunderako duen ardatz nagusienetakoa Urumea ibaiaren ardatza da, eta etorkizunean ere hala izango da. Burutzeko lan asko daukagu bertan. Besteak beste, Loiolako koartelak gunen honetan txertatzea.

La consecución de los cuarteles de Loyola ha sido uno de los grandes objetivos que ha perseguido esta corporación. No ha sido fácil, pero hoy quiero anunciar que la ministra de defensa nos ha comunicado que la decisión definitiva para la venta de los terrenos de los cuarteles se producirá en el Consejo de Ministros del próximo 7 de noviembre.

Amaitzera noa. Ez da erraza 50 minututan legealdi osorako helburuak laburbiltzea. Hemen esan ez direnak Gobernu Programa bateratuan topatu ahal izango dituzue, Garapen Iraunkorrerako Helburuak bere egiten dituen Gobernu Programa. Gure Hiria indarrez etorkizunari aurre egin diezaion landu dugu programa.

Ardura handia daukagu hemen gauden guztiok. Gure nagusiengandik jaso dugun Hiri zoragarri hau gure oinordekoei hobeto uztea. Hori da behintzat niri mugitzen nauen asmoa, eta seguru nago asmo hori partekatu ezkerok, guztion artean lortuko dugula.

Eskerrikasko,